

## ZARAUZKO UDALA

### Ekintzailetasuna Bultzatzeko, Enplegua Sortzeko eta Enpresen Lehiakortasuna Hobetzeko (Inbertsioak) Diru-laguntzak emateko oinarriak

#### Atariko Atala: Oinarri Orokorrak

##### 1. artikulua. Definizioa.

Zarauzko Udalak, bere eskumenen baitan, ekintzailetza, enpleguaren sorrera eta enpresen lehiakortasuna sustatzeko asmoz garatzen duen laguntza multzoa arautzen duite oinarri hauek.

Atariko atal honetan daude zehaztuta deialdi honek arautzen dituen hiru diru-laguntza lerroen oinarri orokorrak. Diru-laguntza-lerro bakoitzari dagozkion oinarri zehatzak diru-laguntza lerro bakoitzaren atalean daude zehaztuta.

##### 2. artikulua. Diru-laguntza deialdiaren kudeaketa.

Zarauzko Udalak hitzarmena egingo du Urola Kostako Udal Elkartearekin, erakunde kolaboratzaile gisa oinarriotan aurreikusitako diru-laguntzak emateko izapideak egin ditzan. Horrenbestez, Urola Kostako Udal Elkarteak bideratuko ditu diru-laguntzak emateko izapide eta eginbide hauek: eskabideak jaso, eskabideen balorazioa egin, diru-laguntzen proposamena egin, diru-laguntzak ebatzi, zuriketak baloratu eta amaierako likidazioa egin.

##### 3. artikulua. Eremua.

Laguntza hauek Zarauzko enpresa eta ekintzaileentzat dira.

Diru-laguntza deialdira aurkezten diren enpresa nahiz ekintzaileek zorrotz bete beharko dute indarrean dagoen ekonomia, zerga eta lan arloko araubidea.

Programa honen bidez, hiru lerro hauetako jardueretarako laguntzak emango dira:

- Enpresa-proiektu berrien sustapena: enpresa ideia landu eta enpresa sortzeko laguntzak(Ikus I. Diru-laguntza lerroa).
- Enpleguaren sustapena: lanpostuak sortzeko laguntzak(Ikus II. Diru-laguntza lerroa).
- Inbertsioetarako laguntzak(Ikus III. Diru-laguntza lerroa).

##### 4. artikulua. Diruz lagundutako jarduera eta inbertsioen epealdia.

Diruz lagunduko dira aurreko artikuluan zehaztutako jarduera (enpresa sortzea eta langabeak kontratatzea) eta inbertsioak, 2016an zehar gauzatzen direnak.

## 5. artikulua. Aurrekontu-kreditua.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzen zenbatekoa, gehienez ere, 150.000,00 eurokoa da, eta Zarauzko Udalaren aurrekontuko 1 0001.481.111.00.03 2016 partidatik ordainduko da.

Deialdi honetarako aurreikusitako zenbatekoa honela banatuko da diru-laguntza lerro edo arloen arabera:

Diru-laguntza lerroa		Zenbatekoa
1	Enpresak sortzeko diru-laguntzak	50.000,00
2	Lanpostuak sortzeko diru-laguntzak	50.000,00
3	Inbertsioetarako diru-laguntzak	50.000,00
	Guztira	150.000,00

Diru-laguntza lerro batean aurreikusitako kredituak diru-laguntza bidez agortzen ez badira edo diru-laguntza ematea onartu ondoren bertan behera geratzen bada (uko egin zaiolako edo baldintzak bete ez direlako), soberakina beste lerroetara pasako dira, lehentasun hurrenkera honekin: lehendabizi lanpostuak sortzeko diru-laguntza lerrora, ondoren enpresak sortzeko diru-laguntza lerrora eta gero inbertsioetarako diru-laguntza lerrora.

Halaber, deialdira aurkeztu diren eskabideekin diru-laguntza hauetarako kreditua agortzen ez bada, bigarren deialdi bat egin ahal izango da. Deialdi horrek lehen deialdi honen oinarri berberak izango ditu, eskabideak aurkezteko epeari dagozkion oinarriak izan ezik. Bigarren deialdi hori Urola Kostako Udal Elkarteak egingo du eta iragarriko da Zarauzko Udalaren eta Urola Kostako Udal Elkartearen webguneetan edota komunikabideen bidez.

## 6. artikulua. Eskabideen balorazioa eta lehiaketa.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak **lehiaketa** bidez emango dira. Eskabideen balorazioa egingo da diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri zehatzetan ezarritako irizpideen arabera.

Eskabideen balorazioan berdinketarik gertatzen bada, eskabideen Sarrera Erregistroko hurrenkera hartuko da kontuan.

## 7. artikulua. Eskarien aurkezpena eta tramitazioa.

Eskaerak aurkeztu behar dira Urola Kostako Udal Elkartearen Erregistro Orokorrean (Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz) edo nahi izanez gero bide telematikoak erabiliz (Udal Elkartearen egoitza elektronikoa, [www.urolakosta.eus](http://www.urolakosta.eus)).

Eskabideak aurkezteko epea hasiko da diru-laguntzen deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean eta **amaituko da 2016ko irailaren 30ean**.

Diru-laguntza lerro bakoitzaren atalean dago zehaztuta aurkeztu behar diren dokumentuen zerrenda. Nolanahi ere den, Urola Kostako Udal Elkarteak eta Balorazio Mahaiak beharrezko

jotzen dituzten dokumentu osagarriak eskatu ahal izango dizkie eskatzaile nahiz onuradunei diru-laguntzak onartu, zuritu edota ordaintzeko izapideetan.

Eskaerak aurkeztearekin eskatzaileak baimena ematen du eskaerako datuak tratatzeko, eta hala badagokio, baita ere datuak beste Administrazio Publiko batzuei lagatzeko, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoak ezarritakoaren arabera.

Eskabideekin jasotzen diren datu pertsonalak tratatu eta erabiliko dira Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoak ezarritakoaren arabera eta txertatuko dira Zarauzko Udalaren erantzukizuneko den "Udal espedienteen kudeaketa " izeneko fitxategian.

#### **8. artikulua. Balorazio Batzordea, diru-laguntzen proposamena eta ebazpena.**

Balorazio Batzorde bat eratuko da diru-laguntza eskaerak baloratu eta diru-laguntzen proposamena egiteko. Balorazio Batzordea kide anitzeko organoa izango da eta kideak Urola Kostako Udal Elkarteak izendatuko ditu. Balorazio Batzordea honako hauek osatuko dute:

Batzordeburu: Udal Elkarteko lehendakaria.

Batzordekide:

- Udal Elkarteko Prestakuntza eta Enplegu arduraduna.
- Udal Elkarteko Enpresa Sustapeneko arduraduna.
- Udal Elkarteko enpresa teknikari bat.
- Udal Elkarteko Euskara eta Komunikazio arduraduna.
- Zarauzko Udalaren ordezkari bat, Zarauzko Udalak izendatzen duena.

Idazkari: Udal Elkarteko idazkaria.

Diru-laguntzak ebaztea, zuriketak onartzea eta ordainketak agintzea Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakariari egokituko zaio.

#### **9. artikulua. Diru-laguntza ematea.**

Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen-proposamena egin aurretik, 30/1992 Legearen 84. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea beteko da; salbuespena izango da, prozeduran, interesatuek agertutako egintzak eta argudiatutako alegazio eta probak bakarrik agertzea edo kontuan hartzea.

#### **10. artikulua. Bateriaezintasunak.**

Diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri zehaztetan daude zehaztuta diru-laguntza hauen bateriaezintasunak.

#### **11. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea.**

Oinarri hauetan jasotako diru-laguntzen ordainketa eta zuriketak egingo dira diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri zehaztetan zehaztutako moduan.

## 12. artikulua. Oinarriak ez betetzea.

Onuradunak oinarri hauetan ezarritako edozein baldintza ez betetzeak diru-laguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du. Ordurako diru-laguntzaren zati bat jasota egonez gero, itzuli egin beharko du eta dagozkion atzerapen interesak eskatu ahal izango zaizkio.

## 13. artikulua. Oinarriak interpretatzea.

Diru-laguntzak kudeatzeko izapideetan sortzen diren gorabeherak interpretatu eta dagokiona erabakitzeke eskumena Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakariari dagokio.

Nolanahi ere den, gorabeheraren izaera kontuan hartuta, oinarri 8. artikulua zehazten duen Balorazio Batzordearen iritzia jasoko du.

## 14. artikulua. Deialdiaren iragarpena.

Deialdi hau, oinarriak eta eskabide orokorra argitaratu eta iragarriko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Zarauzko Udalaren eta Urola Kostako Udal Elkartearen webguneetan. Diru-laguntza mota bakoitzaren eskabide zehatza eta zuriketak egiteko eranskinak, berriz, argitaratuko dira Zarauzko Udalaren eta Urola Kostako Udal Elkartearen webguneetan.

## 15. artikulua. Dokumentuak konpultsatzea.

Eskaerarekin batera aurkeztu behar diren jatorrizko dokumentuen kopia konpultsatuak egingo dira Zarauzko Udaletxean edo Urola Kostako Udal Elkartean.

Eskabidea bide telematikoen bidez aurkezten bada, aurkeztu beharko dira dagokion erakundeak egindako dokumentu elektronikoak. Nolanahi ere den, eskatzaileak paper dokumentuaren kopia eskaneatua ere aurkeztu ahal izango du, baina kasu horretan Zarauzko Udalak edo Urola Kostako Udal Elkarteak jatorrizko paper dokumentua aurkezteko eskatu ahal izango dio, espedientea izapidetzeko edozein unetan.

## 16. artikulua. Datuak egiaztatzea.

Zarauzko Udalak eta Urola Kostako Udal Elkarteak zuzenean egiaztatuko dituzte eskatzailearen errolda datuak eta udaleko zerga betebeharen egoera, eskatzaileak dokumenturik aurkeztu beharrik izan gabe. Era berean, Gizarte Segurantzarekin harremanetan jarriko dira Gizarte Segurantzako betebeharen egoera zuzenean egiaztatzeko.

Eskatzaile edo onuradunak horretarako baimena emango du eskabidearen bidez.

Datu horiek zuzenean egiaztatzea ezinezkoa baldin bada, arazo edo gorabehera teknikoengatik edo bestelakoengatik, Udal Elkarteak eskatzaile edo onuradunari datu horien ziurtagiriak aurkezteko eskatuko dio.

## 17. artikulua. Araudi aplikagarria.

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko 38/2003



Lege Orokorra, Diru-laguntzena (azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko Estatuko Aldizkari Ofiziala); eta Zarauzko Udalak diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea.

#### 18. artikulua. Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

Epeak bi kasuetan deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

Diru-laguntza emateko ebazpenaren eta zuriketa onartzeko eta ordainketa egiteko ebazpenen aurkako berraztertze errekurtsoak Urola Kostako Udal Elkarteko Lehendakartzari aurkeztuko zaizkio.

## OINARRI ZEHATZAK

### I. DIRU-LAGUNTZA LERROA

#### ENPRESA-PROIEKTU BERRIEN SUSTAPENA

##### 19. artikulua. Xedea.

Arlo honetako laguntzen xedea da Zarautzen enpresa berriak sortzea. Diru-laguntza hauek itzuli beharrik gabekoak dira.

##### 20. artikulua. Onuradunak.

Laguntzen onuradunak izango dira honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak:

- Enpresa berria Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan eta Gizarte Segurantzaren dagokion Erregimenean eman beharreko alta Zarauzko udalerrian ematea.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren hasierako alta 2016an egitea.
- Diru-laguntza publikoak lortzeko aukeretatik baztertuta ez egotea.

Laguntza hauek lortzerik ez dute izango ondokoek:

- Enpresa berria abian jarri aurreko 24 hilabeteetan jarduera berean edo berdintsuan titular moduan, bakarka nahiz sozietatean, jardundako sustatzaileen enpresek.
- Aurreko 18 hilabeteetan lokal berean eta jarduera berean egon diren enpresetako lehen mailako ahaideen artean, titularitate aldaketa egon eta hortik sortutako enpresek. Hala ere, justifikatutako arrazoiak baldin badaude (adibidez erretiroa, ezgaitasuna, titularraren heriotza edota ezinbesteko arrazoiak), lehen mailako ahaideen artean titulartasun aldaketa duten enpresek ere aukera izango dute diru-laguntza jasotzeko.
- Partaidetza publikoa duten enpresek.

##### 21. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematen denetik, gutxienez, 10 hilabeteetan eustea jarduera ekonomikoari.
- Foru Ogasuneko, Gizarte Segurantzako eta Zarauzko Udaleko zerga ordainketak egunean ordainduta edukitzea.
- Enpresa sortu bada diru-laguntzen deialdi hau argitaratu aurretik (betiere 2016-01-01etik aurrera), enpresaren epe ertaineko bideragarritasuna egiaztatzea.
- Enpresa sortuko bada diru-laguntzen deialdi hau argitaratu ondoren (betiere 2016-12-31 baino lehen), diru-laguntza ematea onartu ondoren enpresa egitasmoaren bideragarritasun plana egitea Urola Kostako Udal Elkartearen Enpresa Sustapeneko Zerbitzuarekin eta zerbitzu horren oniritzia jasotzea.

**22. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa.**

- Diru-laguntzaren kopurua honela kalkulatu da: onartzen diren eskabideen diru-laguntzaren oinarria 1.000,00 eurokoa izango da. Kopuru horri gehituko zaizkio taulan agertzen diren kopuruak, sustatzailearen edo enpresa proiektuaren ezaugarrien arabera.

	Diru-laguntza €
Diru-laguntzaren oinarria	1.000,00
Oinarriari gehitzeko, sustatzailearen edo enpresa proiektuaren arabera	
Sustatzaileen edo bazkideen erdia gutxienez emakumeak izatea	100,00
Sustatzaileen edo bazkideen erdia gutxienez 30 urtetik beherakoa edo 45 urtetik gorakoa izatea	100,00
Sustatzaileen edo bazkideen erdia gutxienez Zarautzen erroldatuta egotea, gutxienez urte 1 (deialdia argitaratzen den egunetik atzera kontatuta)	100,00

**23. artikulua. Balorazio irizpideak.**

- Atal honetako diru-laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Eskabideen balorazioa egingo da irizpide hauen arabera:

	Puntuak
Sortutako enpresa izatea hauetako sektore edo jardueraren batekoa: lehen sektorea, enpresa industrialak edo enpresa teknologikoak.	10
Sustatzaileen edo bazkideen erdia gutxienez emakumeak izatea	5
Sustatzaileen edo bazkideen erdia gutxienez 30 urtetik beherakoa edo 45 urtetik gorakoa izatea	5
Sustatzaileen edo bazkideen erdia gutxienez Zarautzen erroldatuta egotea, gutxienez urte 1 (deialdia argitaratzen den egunetik atzera kontatuta)	5
Enpresa berriak sortu duen lanpostu kopurua *Sortutako lanpostu bakoitzeko 2 puntu emango dira eta gehienez 10	10*

- Eskabideen balorazioan berdinketarik gertatzen bada, eskabideen Sarrera Erregistroko hurrenkera hartuko da kontuan.

**24. artikulua. Eskabidea aurkezteko data baino lehen sortutako enpresak (betiere, 2016-01-01etik aurrera): eskabidea, zuriketa eta ordainketak.**

Ondoren daude zehaztuta eskatzaile horiek eskabidea egiteko aurkeztu behar dituzten dokumentuak, eta diru-laguntza jasotzeko eta zuriketak egiteko modu eta epeak.

**24.1.** Diru-laguntza eskatzeko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- a) Eskabidea: A eranskina eta B eranskina.
- b) IFKren fotokopia konpultsatua.
- c) Eskatzaile(ar)en edo ordezkari(ar)en NANren fotokopia konpultsatua.
- d) IAE-JEZren alta-dokumentuaren fotokopia konpultsatua..
- e) Gizarte Segurantzako dagokion erregimenean sustatzaileek alta eman izanaren ziurtagiria edo Gizarte Segurantzako enpresaren kontuaren altaren ziurtagiria.
- f) Enpresaren emaitzen kontua eta balantzea (kontabilitateko plan orokorraren arabera egina), eskabidea egiten duen unekoa.
- g) Ogasuneko zerga betebeharrak egunean beteta daudela egiaztatzeko ziurtagiria.

**24.2.** Enpresaren edo enpresa egitasmoaren bideragarritasuna. Diru-laguntza eskuratzeko beharrezkoa izango da enpresaren edo enpresa egitasmoaren epe ertaineko bideragarritasuna egiaztatzea. Horrela egiten ez duten eskabideak baztertuta geratuko dira. Bideragarritasuna egiaztatzeko eskabidearekin batera aurkeztu beharko da une horretako enpresaren balantzea eta bideragarritasun memoria. Enpresaren bideragarritasuna Urola Kostako Udal Elkartearen Enpresa Sustapeneko Zerbitzuak baloratuko du eta, horrela baldin badagokio, onarpena emango dio.

**24.3.** Diru-laguntzen ordainketa eta zuriketak. Diru-laguntza ematea onartzen denean %50 ordainduko da. Gainerako %50 ordainduko da enpresak 10 hilabete bete ondoren (altaren datatik kontatzen hasita), amaierako justifikazioa aurkeztu eta ontzat jotzen denean. Amaierako justifikazioa egiteko honako dokumentuak aurkeztuko dira:

- a) J eranskina.
- b) Gizarte Segurantzaren ziurtagiria, jarduerak Gizarte Segurantzaren altan jarraitzen duela adierazten duena.
- c) Enpresaren emaitzen kontua eta balantzea, kontabilitateko plan orokorraren arabera egina, amaierako zuriketa aurkezten den unekoa.
- d) Enpresa onuradunak IAE-JEZn altan jarraitzen duela egiaztatzeko ziurtagiria.
- e) Ogasuneko zerga betebeharrak egunean beteta daudela egiaztatzeko ziurtagiria.

**25. artikulua. Eskabidea aurkeztu ondoren sortuko diren enpresak (betiere, 2016-12-31 baino lehen): eskabidea, zuriketa eta ordainketak.**

Ondoren daude zehaztuta eskatzaile horiek eskabidea egiteko aurkeztu behar dituzten dokumentuak, eta diru-laguntza jasotzeko eta zuriketak egiteko modu eta epeak.

**25.1.** Diru-laguntza eskatzeko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- a) Eskabidea: A eranskina eta C eranskina.
- b) Eskatzaile(ar)en edo ordezkari(ar)en NANren fotokopia konpultsatua.

**25.2.** Enpresaren edo enpresa egitasmoaren bideragarritasuna. Diru-laguntza ematea onartzen zaien eskabideek beharrezkoa izango dute diru-laguntza onartu ondoren



enpresaren edo enpresa egitasmoaren epe ertaineko bideragarritasuna egiaztatzea, izan ere, bideragarritasuna behar bezala egiaztatzen ez badute onartutako diru-laguntza galdu egingo dute. Bideragarritasuna egiaztatzeko, ekintzaileek beren enpresa egitasmoaren bideragarritasun azterketa eta negozio plana egingo dute Urola Kostako Udal Elkartearen Enpresa Sustapeneko Zerbitzuan. Zerbitzu horrek emango dio, horrela baldin badagokio, onarpena bideragarritasun planari. Zerbitzu horren onarpena ezinbesteko baldintza izango da diru-laguntza eskuratzeko. Bideragarritasun-plana ontzat jo ondoren, sortzeaz dauden enpresa horiek hilabeteko bateko epea izango dute enpresari alta emateko izapideak egin eta egiaztagiria Udal Elkarteari aurkezteko. Enpresa berriari alta emango zaio, beranduenera, 2016ko abenduaren 31n.

**25.3.** Diru-laguntzen ordainketa eta zuriketak. Diru-laguntza ordainduko da 3 zatitan:

Enpresa altan ematen denean diru-laguntzaren %20 ordainduko da. Altan eman dela egiaztatzeko, honako dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- a) Heranskina.
- b) Alta emandako enpresaren IFKren fotokopia konpultsatua.
- c) IAE-JEZren alta-dokumentuaren fotokopia konpultsatua.
- d) Gizarte Segurantzako dagokion erregimenean sustatzaileek alta eman izanaren ziurtagiria edo Gizarte Segurantzako enpresaren kontuaren altaren ziurtagiria.
- e) Ogasuneko zerga betebeharrak egunean beteta daudela egiaztatzeko ziurtagiria.

Enpresak 4 hilabete betetzen dituen ordainduko da diru-laguntzaren %30. Hori egiaztatzeko, honako dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- a) Heranskina.
- b) Enpresa onuradunak IAE-JEZn altan jarraitzen duela egiaztatzeko ziurtagiria.
- c) Ogasuneko zerga betebeharrak egunean beteta daudela egiaztatzeko ziurtagiria.

Gainerako %50 ordainduko da enpresak 10 hilabete bete ondoren (altaren datatik kontatzen hasita), amaierako justifikazioa aurkeztu eta ontzat jotzen denean. Amaierako justifikazioa egiteko honako dokumentuak aurkeztuko dira:

- a) Heranskina.
- b) Gizarte Segurantzaren ziurtagiria, jarduerak Gizarte Segurantzaren altan jarraitzen duela adierazten duena.
- c) Enpresa onuradunak IAE-JEZn altan jarraitzen duela egiaztatzeko ziurtagiria.
- d) Ogasuneko zerga betebeharrak egunean beteta daudela egiaztatzeko ziurtagiria.
- e) Enpresaren emaitzen kontua eta balantzea, kontabilitateko plan orokorraren arabera egina, amaierako zuriketa aurkeztu den unekoa.

**26. artikulua. Gorabeherak jakinarazteko betebeharra.**

Onuradunaren betebeharra da diruz lagundutako jardueraren (enpresa sortzearen) inguruko gorabeherak Urola Kostako Udal Elkarteari jakinaraztea, gertatu eta berehala, hala nola: diru-laguntza onartu eta bideragarritasun-plana egin ondoren enpresa ez sortzea erabakitzea;



ZARAUZKO UDALA

bideragarritasun plana egin eta enpresa sortzeko ezarritako epea betetzeko ezintasuna; diru-laguntzaren zenbatekoa finkatzeko baldintzaren baten aldaketa eta abar.

**27. artikulua. Bateriaezintasunak.**

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza hau ez da bateragarria helburu bererako beste erakunde publikoek emandako diru-laguntzekin.

## II. DIRU-LAGUNTZA LERROA

### ENPLEGUAREN SUSTAPENA: LANPOSTUAK SORTZEKO LAGUNTZAK

#### 28. artikulua. Xedea.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak emango dira lanpostuak sortzeko, hau da, diru-laguntzak emango dira langileak kontratatzeko nahiz bere enpresa sortu duen ekintzaile edo autonomoak bere lanpostua sortzeko (autoenplegua).

Diru-laguntza bidez egindako kontratazioak enplegu-sorrera garbia eragin behar du enpresan, hau da: diru-laguntzaren bidez kontratatutako pertsona enpresan laneratzen den hilabeteko plantillako langileen kopuruak izan behar du aurreko 3 hiletan enpresak batez beste zuen langile kopurua baino handiagoa. Plantillaren batez bestekoa kalkulatzeko lanaldi osoak eta partzialak hartuko dira kontuan (azken horien kasuan lan egindako orduen proportzioan).

Kontratu berriek indarrean dauden lan-hitzarmen sektorialak bete beharko dituzte. Prestakuntza eta ikasketa kontratuak ez dira diruz lagunduko.

#### 29. artikulua. Diruz lagundutako kontratuen ezaugarriak.

Diruz lagundutako kontratuaren iraupena gutxienez 4 hilabetekoa izango da eta lanaldia, gutxienez %75ekoa. Autonomoen erregimenean altan ematen duten eskatzaileen kasuan, alta egoeran egon beharko dute, gutxienez, 10 hilabete.

Kontratatzen den pertsonak, kontratatu aurretik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egon behar du, langabe eta lan eskatzaile gisa, bere lanpostua sortzen duten ekintzailearen kasuan izan ezik.

Enpresa bakoitzak gehienez ere bi lanposturen sorreragatik eskuratu ahal izango du diru-laguntza.

Ez da kontratatzeko diru-laguntzarik emango enpresaburuaren, enpresa-zuzendarien eta sozietateen izaera juridikoa duten enpresen administrazio-organoetako kide diren pertsonen ezkontideak, ondorengoak eta gainerako senideak kontratatzeko, baldin eta haiekin bigarren mailara arteko odolkidetasunezko edo afinitatezko harremana badute, ezta hasieran adierazitako pertsona horiek kontratatzeko ere. Norbere lanpostua sortu dutenen kasuan, enpresan izango duen kargua ez da kontuan hartuko diru-laguntza emateko orduan.

#### 30. artikulua. Diru-laguntzen hartzaileak.

Diru-laguntza lerro honetako onuradun izango dira ondoko baldintza hauek betetzen dituzten enpresak:

1. Edozein forma juridikoko enpresa edo erakunde enplegatzailea izatea, egoitza Zarautzen duena.

2. Beren lanpostua sortzen duten ekintzaileen kasuan, Zarautzen erroldatuta egotea, gutxienez urte 1, deialdia argitaratzen denetik atzera kontatuta.
3. IAE-JEZn alta emanda egotea eta zerga horren betebeharrak egunean ordainduta izatea, betiere enpresaren jarduerak zerga hori ordaintzea eskatzen badu Zerga ordaintzetik salbuetsita egonez gero, horrela adieraziko da zinpeko adierazpen bidez.
4. Foru Ogasuneko, Gizarte Segurantzako eta Zarauzko Udaleko zerga-betebeharrak egunean ordainduta edukitzea.
5. Langile autonomoen kasuan, autonomoen erregimenean altan emandako lan-jarduera berria izatea burutzen duen jarduera ekonomiko bakarra.
6. Administrazio edo erakunde publikoen edo txikitzat hartzen ez diren enpresen menpeko ez izatea edo horiek %50 edo gehiagoko parte-hartzerik ez izatea.
7. Diru-laguntza publikoak jasotzetik baztertuta ez egotea arau-haustek egiteagatik.
8. Eskabideen balorazioan penalizatu egingo dira langabeak kontratatzeko Urola Kostako Udal Elkarteak 2014 eta 2015ean egin zituen deialdietan diru-laguntza jaso zuten Zarauzko enpresak, oinarriotako balorazio irizpideen taulan agertzen denaren arabera.

**31. artikulua. Eman beharreko laguntzak.**

Bi diru-laguntza mota emango dira:

**31.1.** Beren enpresa eta lanpostua sortu duten ekintzaileak (autoenplegua).

Sortutako eta altan emandako lanpostuaren diru-laguntzaren oinarria 800,00 eurokoa izango da.

Hortik aurrera, altan emandako pertsonaren ezaugarrien arabera, diru-laguntzari ondoko taulan zehaztutako kopuruak gehituko zaizkio:

Diru-laguntzaren zenbatekoa					
Autoenplegatutako pertsonaren ezaugarrien arabera gehitu					
Oinarria	Emakumeak	45 urtetik gora	Minus baliotasuna	Langabezian inskribatuta 18 hil baino gehiago	RGI/DBE jasotzailea izatea
800	100	100	100	100	100

**31.2.** Langileak kontratatzen dituzten enpresak.

Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean alta emandako langile berri bakoitzeko oinarria erabakiko da kontratuaren iraupenaren eta lanaldiaren arabera. Hortik aurrera, kontratatutako pertsonaren ezaugarrien arabera, diru-laguntzari ondoko taulan zehaztutako kopuruak gehituko zaizkio.

Kontratuaren ezaugarriak		Diru-laguntzaren zenbatekoa								
		Kontratatutako pertsonaren ezaugarrien arabera gehitu								
Iraupena Hilabeteak	Lanaldia %	Oinarria	Emakumeak	45 urtetik gora	Minus baliotasuna	Langabezia inskribatuta 18 hil baino gehiago	Zarautzen erroldatuta gutxienez urte 1	RGI/DBE jasotzailea izatea	Kontratu mota: 12 hilabetekoa edo mugagabea	Lehen enplegua
4	75	400	100	100	100	100	100	100		100
4	100	600	100	100	100	100	100	100		100
5	75	500	100	100	100	100	100	100		100
5	100	700	100	100	100	100	100	100		100
6	75	600	100	100	100	100	100	100	150	100
6	100	800	100	100	100	100	100	100	150	100

Adibide gisa, kontratatutako pertsonari 6 hilabeteko kontratua egiten bazaio, %100eko lanaldikoa, diru-laguntzaren oinarria 800,00 eurokoa izango da. Horri gehituko zaizkio kontratatutako pertsonaren ezaugarrien arabera kopuruak: kontratatutako pertsona emakumea bada 100,00 euro gehiago, 30 urtetik beherakoa bada 100,00 euro gehiago eta abar.

32. artikulua. Balorazio irizpideak.

- Atal honetako diru-laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Eskabideen balorazioa egingo da irizpide hauen arabera:

Balorazio-irizpidea	Puntuak
Enpresa eskatzailea 2015-01-01etik 2016-09-30 bitartean sortutakoa izatea	5
Kontratatutako edo autoenplegatutako pertsona emakumea izatea	5
Lan-kontratuaren lanaldia %100ekoa izatea	5
Lan-kontratuaren iraupena 12 hilabetekoa edo mugagabea izatea	5
Kontratatutako edo autoenplegatutako pertsona kontratatu aurretik RGI/DBE jasotzaile izatea	5
Kontratatutako edo autoenplegatutako pertsonak minusbaliotasun aitortua izatea (gutxienez %33koa)	5
Kontratatutako edo autoenplegatutako pertsona 45 urtetik gorakoa izatea	7
Kontratatutako pertsona Zarautzen erroldatuta egotea, gutxienez urte 1 (deialdia argitaratzen den egunetik atzera kontatuta)	5
Beren enpresa eta lanpostua sortu duten ekintzaileak (autoenplegua)	5
Kontratatutako edo autoenplegatutako pertsonak Udal Elkarteak langabeak eta langileak prestatzeko eta laneratzeko antolatutako programetan parte hartzea azken bi urteetan	5
Lehen enplegua	5
Langabeak kontratatuzeko Urola Kostako Udal Elkarteak 2014 eta 2015ean egin zituen deialdietan diru-laguntza jasotako Zarauzko enpresak.  Penalizazio hau aplikatuko zaie diruz lagundutako kontratazioaren alta hilabeteko aurreko 12 hilabeteetan lanpostu sorrera garbirik izan ez duten enpresei. Diruz lagundutako kontratazioaren aurreko 6 hilabeteko plantillaren batez bestekoa eta 12 hilabete lehenagokoa hartuko dira kontuan lanpostu sorrerarik izan den ala ez egiaztatzeko; sei hilabeteko batez besteko horrek urtebete lehenagokoa baino handiagoa izan beharko du penalizaziorik ez aplikatzeko.	-10

- Eskabideen balorazioan berdinketarik gertatzen bada, eskabideen Sarrera Erregistroko hurrenkera hartuko da kontuan.

**33. artikulua. Eskabidea aurkezteko data baino lehen kontratatutako langileak (betiere, 2016-01-01etik aurrera): eskabidea, zuriketa eta ordainketak.**

**33.1.** Diru-laguntza eskatzeko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- a) Eskabidea: A eranskina eta D eranskina.
- b) IFKren fotokopia konpultsatua.
- c) Eskatzaile(ar)en edo ordezkari(ar)en NANaren fotokopia konpultsatua.
- d) Kontratatutako langilearen NANaren fotokopia konpultsatua.
- e) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ziurtagiria, kontratatutako langilea kontratatu aurretik Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda zegoela zehazten duena, langabe eta lan eskatzaile gisa.
- f) Gizarte Segurantzaren dagokion Erregimenean emandako altaren fotokopia konpultsatua.
- g) Lanbiden inskribatutako lan-kontratuaren fotokopia konpultsatua.
- h) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egindako ziurtagirien kopiak: ziurtagiri bat agertzen duena kontratatutako pertsona laneratu aurreko 3 hilabeteetako enpresaren batez besteko plantilla; eta bestea agertzen duena kontratatutako pertsona laneraturako hilabeteetako enpresaren batez besteko plantilla.
- i) Eskabidearekin batera adierazitako egoera edo ezaugarri pertsonalak egiaztatzekeo ziurtagiriak: minusbaliotasunaren egiaztatzea, RGI jasotzaile izatearen egiaztatzea, erroldako ziurtagiria...
- j) Ogasuneko zerga betebeharrak egunean beteta daudela egiaztatzekeo ziurtagiria.

**33.2.** Diru-laguntzen ordainketa eta zuriketak: Diru-laguntza ematea onartzen denean %50 ordainduko da. Diruz lagundutako epealdia amaitu eta amaierako zuriketa aurkeztu eta onartzen denean beste %50 ordainduko da.

Amaierako zuriketa egiteko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- a) L eranskina.
- b) Kontratatutako edo altan emandako langilearen diruz lagundutako epealdiko nominen kopiak, eta TC1 eta TC2 dokumentuak.
- c) Ogasuneko zerga betebeharrak egunean beteta daudela egiaztatzekeo ziurtagiria.

**34. artikulua. Eskabidea aurkeztu ondoren kontratatutako langileak (betiere, 2016-12-31 baino lehen): eskabidea, zuriketa eta ordainketak.**

**34.1.** Diru-laguntza eskatzeko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- a) Eskabidea: A eranskina eta D eranskina.
- b) IFKren fotokopia konpultsatua.
- c) Eskatzaile(ar)en edo ordezkari(ar)en NANaren fotokopia konpultsatua.

**34.2.** Diru-laguntzen ordainketa eta zuriketak:

Diruz lagundutako kontratazioa egin eta horren justifikazioa aurkeztu eta ontzat jotzen denean %50 ordainduko da. Diruz lagundutako epealdia amaitu eta amaierako zuriketa aurkeztu eta onartzen denean beste %50 ordainduko da.

Kontratua egin izanaren zuriketa egiteko honako dokumentuak aurkeztuko dira:

- a) K eranskina.
- b) Kontratutako langilearen NANaren fotokopia konpultsatua.
- c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ziurtagiria, kontratatutako pertsona kontratatu aurretik Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda zegoela zehazten duena, langabe eta lan eskatzaile gisa.
- d) Gizarte Segurantzaren dagokion Erregimenean emandako altaren fotokopia konpultsatua.
- e) Lanbiden inskribatutako lan-kontratuaren fotokopia konpultsatua.
- f) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egindako ziurtagirien kopiak: ziurtagiri bat agertzen duena kontratatutako pertsona laneratu aurreko 3 hilabeteetako enpresaren batez besteko plantilla; eta bestea agertzen duena kontratatutako pertsona laneratutako hilabeteko enpresaren batez besteko plantilla.
- g) Eskabidearekin batera adierazitako egoera edo ezaugarri pertsonalak egiaztatzekeo ziurtagiriak: minusbaliotasunaren egiaztatzea, RGI jasotzaile izatearen egiaztatzea, erroldako ziurtagiria...
- h) Ogasuneko zerga betebeharrak egunean beteta daudela egiaztatzekeo ziurtagiria.

Amaierako zuriketa egiteko honako dokumentuak aurkeztuko dira:

- a) L eranskina.
- b) Kontratutako edo altan emandako langilearen diruz lagundutako epealdiko nominen kopiak, eta TC1 eta TC2 dokumentuak.
- c) Ogasuneko zerga betebeharrak egunean beteta daudela egiaztatzekeo ziurtagiria.

**35. artikulua. Eskabidea aurkezteko data baino lehen autoenplegatutako langileak (betiere, 2016-01-01etik aurrera): eskabidea, zuriketa eta ordainketak.**

**35.1.** Diru-laguntza eskatzeko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- a) Eskabidea: A eranskina eta E eranskina.
- b) IFKren fotokopia konpultsatua.
- c) Eskatzaile(ar)en edo ordezkari(ar)en NANaren fotokopia konpultsatua.
- d) Autoenplegatutako langilearen NANaren fotokopia konpultsatua.
- e) Gizarte Segurantzaren dagokion Erregimenean emandako altaren fotokopia konpultsatua.
- f) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egindako ziurtagirien kopiak: ziurtagiri bat agertzen duena kontratatutako pertsona laneratu aurreko 3 hilabeteetako enpresaren batez besteko plantilla; eta bestea agertzen duena kontratatutako pertsona laneratutako hilabeteko enpresaren batez besteko plantilla.
- g) Eskabidearekin batera adierazitako egoera edo ezaugarri pertsonalak egiaztatzekeo ziurtagiriak: minusbaliotasunaren egiaztatzea, RGI jasotzaile izatearen egiaztatzea, erroldako ziurtagiria...



h) Ogasuneko zerga betebeharrak egunean beteta daudela egiaztatzeko ziurtagiria.

**35.2.** Diru-laguntzen ordainketa eta zuriketak: Diru-laguntza ematea onartzen denean %50 ordainduko da. Diruz lagundutako epealdia amaitu eta amaierako zuriketa aurkeztu eta onartzen denean beste %50 ordainduko da.

Amaierako zuriketa egiteko honako dokumentuak aurkeztuko dira:

- a) N eranskina.
- b) Lan-bizitza, eguneratua.
- c) Ogasuneko zerga betebeharrak egunean beteta daudela egiaztatzeko ziurtagiria.

**36. artikulua. Eskabidea aurkeztu ondoren autoenplegatutako langileak (betiere, 2016-12-31 baino lehen): eskabidea, zuriketa eta ordainketak.**

**36.1.** Diru-laguntza eskatzeko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- a) Eskabidea: A eranskina eta E eranskina.
- b) IFKren fotokopia konpultsatua.
- c) Eskatzaile(ar)en edo ordezkari(ar)en NANaren fotokopia konpultsatua.

**36.2.** Diru-laguntzen ordainketa eta zuriketak: diruz lagundutako lanpostuaren alta egin eta horren justifikazioa aurkeztu eta ontzat jotzen denean %50 ordainduko da. Diruz lagundutako epealdia (10 hilabete) amaitu eta amaierako zuriketa aurkeztu eta onartzen denean beste %50 ordainduko da.

Autoenpleguaren alta egin izanaren zuriketarako honako dokumentuak aurkeztuko dira:

- a) M eranskina.
- b) Autoenplegatutako langilearen NANaren fotokopia konpultsatua.
- c) Gizarte Segurantzaren dagokion Erregimenean emandako altaren fotokopia konpultsatua.
- d) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egindako ziurtagirien kopia: ziurtagiri bat agertzen duena kontratatutako pertsona laneratu aurreko 3 hilabeteetako enpresaren batez besteko plantilla; eta bestea agertzen duena kontratatutako pertsona laneratutako hilabeteko enpresaren batez besteko plantilla.
- e) Eskabidearekin batera adierazitako egoera edo ezaugarri pertsonalak egiaztatzeko ziurtagiriak: minusbaliotasunaren egiaztagiria, RGI jasotzaile izatearen egiaztagiria, erroldako ziurtagiria...
- f) Ogasuneko zerga betebeharrak egunean beteta daudela egiaztatzeko ziurtagiria.

Amaierako zuriketarako honako dokumentuak aurkeztuko dira:

- a) N eranskina.
- b) Lan-bizitza, eguneratua.
- c) Ogasuneko zerga betebeharrak egunean beteta daudela egiaztatzeko ziurtagiria.

Diruz lagundutako lan-kontratua amaitzen bada deialdian adierazitako gutxieneko epea edo eskabidean adierazitako epea bete baino lehen, eskatzaileak diru-laguntzaren ordaina jasotzeko eskubidea galduko du, betiere kontratua ez bada amaitu erakunde kontratatzailearen erabakiz. Kasu horretan diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da lan-kontratua indarrean egon den epearen proportzioan.

Diruz lagundutako kontratuaren iraupen-epearen barruko gaixotasun arrunten nahiz lan-gaixotasunen ondorio diren bajak ez dira diruz lagunduko, betiere bajan dagoen langilea ordezkatzan ez bada. Kasu horretan kontratazio epeak lagunduko dira soilik.

Autonomoen erregimenean altan emandako eskatzaileen kasuan, alta egoeran 10 hilabete egiten ez badira, eskatzaileak diru-laguntzaren azken ordainketa jasotzeko eskubidea galduko du.

### **37. artikulua. Gorabeherak jakinarazteko betebeharra.**

Onuradunaren betebeharra da diruz lagundutako jardueraren (langileak kontratatzearen) inguruko gorabeherak Urola Kostako Udal Elkarteari jakinaraztea, gertatu eta berehala, hala nola: diruz lagundutako kontratazioa ez egitea erabakitzea; diru-laguntzaren zenbatekoa finkatzeko baldintzaren baten aldaketa; kontratatutako pertsonak bere gogoz kontratua bertan behera uztea eta abar.

### **38. artikulua. Bateriaezintasunak.**

Diru-laguntza lerro honetako diru-laguntzak bateragarriak dira langileak kontratatzeako bestelako diru-laguntzekin, betiere, diru-laguntza guztiekin dena delako kontratuaren edo autonomoetako lan- lan-kostu guztien %75 gaintzen ez bada. Autonomoen lan-kostuen kasuan, hileko kostuaren erreferentzia gisa hartuko da Gizarte Segurantzako gutxieneko kuotaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren batura.

### III. DIRU-LAGUNTZA LERROA

#### INBERTSIOETARAKO LAGUNTZAK

##### 39. artikulua. Xedea.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak emango dira enpresaren jarduerarekin zerikusia duten inbertsioetarako. Inbertsioetat hartuko dira kontabilitateko plan orokorrean zehazten diren partidak.

Inbertsioak gutxienez 2.000,00 eurokoa izan beharko du (BEZ kanpo).

##### 40. Balorazio irizpideak.

Atal honetako diru-laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Eskabideen balorazioa egingo da irizpide hauen arabera:

Inbertsio mota	Puntuak
Inbertsioak orokorrean	5 puntu
Efizientzia energetikorako hobekuntza edo/ta energia berriztagarrien erabilera ahalbidetuko dituen inbertsioak.	10 puntu

##### 41. artikulua. Diru-laguntzen hartzaileak.

Honako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak:

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea.
- Lantokia Zarauzko udalerrian edukitzea.
- Enpresa eskatzailea sortuta egotea 2014-07-01 baino lehen.
- 2016 ekitaldian diru-laguntza gai diren inbertsioak egitea.
- Foru Ogasuneko, Gizarte Segurantzako eta Zarauzko Udaleko zerga ordainketak egunean ordainduta edukitzea.

##### 42. artikulua. Eman beharreko laguntzak.

- Ematen diren laguntzek itzuli beharrik gabeko diru-laguntza izaera izango dute.
- Diru-laguntzaren kopurua izango da, gehienez ere, inbertsioaren %30 eta gehienez 2.500,00 eurokoa.
- Inbertsioetarako laguntza bakarra emango da enpresa bakoitzeko.
- Eskaera izan daiteke inbertsio bakar batena edo urtean zehar egindako inbertsioen baturarena.

**43. artikulua. Eskabidea aurkezteko data baino lehen egindako inbertsioak (betiere, 2016-01-01etik aurrera): eskabidea, zuriketa eta ordainketak.**

Ondoren daude zehaztuta eskatzaile horiek eskabidea egiteko aurkeztu behar dituzten dokumentuak, eta diru-laguntza jasotzeko eta zuriketak egiteko modu eta epeak.

**43.1.** Diru-laguntza eskatzeko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- a) Eskabidea: A eranskina eta F eranskina.
- b) IFKren fotokopia konpultsatua.
- c) Eskatzaile(ar)en edo ordezkari(ar)en NANaren fotokopia konpultsatua.
- d) IAE-JEZren alta-dokumentuaren kopia konpultsatua.
- e) Inbertsioaren faktura eta ordainketen (transferentzien egiaztagiriak edo gisa berekoak) kopia konpultsatuak. Inbertsioaren fakturak 2016ko data izango du.
- f) Ogasuneko zerga betebeharrak egunean beteta daudela egiaztatzeko ziurtagiria.

**43.2.** Diru-laguntzen ordainketa eta zuriketak: Diru-laguntza ematea onartzen denean %100 ordainduko da.

**44. artikulua. Eskabidea aurkeztu ondoren egindako inbertsioak (betiere, 2016-12-31 baino lehen): eskabidea, zuriketa eta ordainketak.**

Ondoren daude zehaztuta eskatzaile horiek eskabidea egiteko aurkeztu behar dituzten dokumentuak, eta diru-laguntza jasotzeko eta zuriketak egiteko modu eta epeak.

**44.1.** Diru-laguntza eskatzeko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- a) Eskabidea: A eranskina eta G eranskina.
- b) IFKren fotokopia konpultsatua.
- c) Eskatzaile(ar)en edo ordezkari(ar)en NANaren fotokopia konpultsatua.

**44.2.** Diru-laguntzen ordainketa eta zuriketak: Diruz lagundutako inbertsioa egin eta amaierako zuriketa aurkezten denean %100 ordainduko da.

Amaierako zuriketa egiteko honako dokumentuak aurkeztuko dira:

- a) O eranskina.
- b) Inbertsioaren faktura eta ordainketen (transferentzien egiaztagiriak edo gisa berekoak) kopia konpultsatuak. Inbertsioaren fakturak 2016ko data izango du. Urte amaieran egiten diren inbertsioen kasuan, amaierako zuriketa aurkeztu beharko da, beranduenera, 2017ko urtarrilaren 31 baino lehen.
- c) Ogasuneko zerga betebeharrak egunean beteta daudela egiaztatzeko ziurtagiria.

**45. artikulua. Gorabeherak jakinarazteko betebeharra.**

Onuradunaren betebeharra da diruz lagundutako jardueraren (inbertsioaren) inguruko gorabeherak Urola Kostako Udal Elkarteari jakinaraztea, gertatu eta berehala, hala nola: diruz



lagundutako inbertsioa ez egitea erabakitzea; diru-laguntzaren zenbatekoa finkatzeko baldintzaren baten aldaketa eta abar.

**46. artikulua. Bateriaezintasunak.**

Diru-laguntza lerro honetako diru-laguntzak bateragarriak dira inbertsioetarako bestelako diru-laguntzekin, betiere, dena delako inbertsioa egiteko jasotako diru-laguntza guztiekin inbertsioaren zenbatekoaren %100 gainditzen ez bada.